


Gizarte zerbitzuetan egindako gastua %15etik gora igo eta mila milioi euroraino iritsi zen

Herri administrazioaren ekarpena gastuaren %69 izan zen

EUSTATen datuen arabera Euskal Autonomia Erkidegoan, 2003. urtean, 1.073 milioi euroko gastua egin zen gizarte zerbitzuetan, hau da, aurreko urtean baino %17 gehiago eta EAEko BPGaren %2,3 izanik. Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 511 eurokoa izan zen, eta horietako 353 funts publikoetatik erabili ziren.

Lurraldeka, Araban eta Bizkaian %18 igo zen gastua eta Gipuzkoan %16. Biztanleko, Araban izan da beste lurraldeetan baino gastu handiagoa, biztanle bakoitzeko batez bestekoa 649 eurokoa baitzen; Gipuzkoan, ordea, 500 eurokoa eta Bizkaian 482 eurokoa.

Grafikoa: Gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera biztanle bakoitzeko



Iturria: EUSTAT

Herri administrazioek 742 milioi euroko ahalegina egin zuten (gastuaren %69), eta sektore pribatuak gainerako %31 eman zuen. Bestalde, emandako zerbitzuen trukean erabiltzaileek 136 milioi euro eman zituzten, hau da, gastu arruntaren %17a.

1. taula: magnitude nagusien bilakaera

	2003	2002	Δ% 03/02
Gastua (mila euro)	1.073.054	915.747	17,2
- Gastu arruntak	786.287	671.719	17,1
- Familietarako transferentziak	232.086	202.511	14,6
- Kapital-gastuak	54.681	41.517	31,7
Gastua/Biztanleko (euro)	511,2	444,5	15,0
Gastua/BPG (%)	2,3	2,0	11,4
Finantzaketa			
- Finantzaketa publikoa	741.894	642.289	15,5
- Finantzaketa pribatua	331.160	273.458	21,1
Giza baliabideak			
Langileak guztira	32.657	30.621	6,6
- Bertako langileak	18.855	16.797	12,3
- Borondatezkoak	13.802	13.824	-0,2
Material-baliabideak			
- Izakunde-kop.	1.266	1.224	3,4
- Zentro-kop.	2.388	2.305	3,6
- Egoitza-kop.	666	633	5,2
- Egoitza-plazak	18.750	17.188	9,1

Iturria: EUSTAT

Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte zerbitzuetako 2.388 zentro izan zituen, eta horietan zuzenean 18.855 pertsonari eman zitzaion lana (okupatuen %2,1ari)

Zentro mota ezberdinen artean egoitzazko zentroak (egoitzak, etxe funtzionalak, oinezkoentzako aterpetxeak, etab.) izan ziren ugaritsuenak, %27arekin; guztira 666 egoitzazko zentro izan ziren, 18.750 plazarekin. Zentro horietan 8.610 pertsonak lan egin zuten; guztira, 373 milioi euro gastatu zituzten, hots, guztirakoaren %46 eta %35 hurrenez hurren.

Gizarte zerbitzuak zein biztanle-talderi zuzenduta dauden kontuan hartuta, arreta gehien eman zitzaion arloak adinekoentzako egoitzak eta familientzako diru-laguntzak izan ziren. Bi arlo hauek, gastuaren erdia eragin zuten.

Adinekoei laguntzeko gastua %25,1 gehitu zen 2003. urtean

Hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzuetan hiru arreta mota ematen dira: egoitzazko zerbitzuak, eguneko zentroetako arreta eta etxez etxeko arreta. Izan ere, hirugarren adinekoen kopurua gero eta handiagoa da, biztanleria zahartzen doalako, eta beraz eguneroko jarduerak modu autonomoan burutzeko gero eta urritu gehiago dago. Zerbitzu horien bidez, 65 urtetik gorako %9 biztanleri eman zitzaion arreta.

Egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan 14.123 plaza eskaini ziren, 100 adineko bakoitzeko 3,7 plaza betez. Azken bost urteetan %4 gehitu da urteko plazen eskaintza (+2.535 plaza) eta %11 gastua (+114 milioi euro). Halaber, kontsumo publikoko eskaintza pribatua ere gehitu zen, itunen bidez eta erabiltzaileek egindako gero eta ekarpen handiagoen bidez.

Adineko gehienak euren etxeetan bizi dira eta, hain zuzen, egun euren etxeetan bizitzen jarraitzeko aukerak ematen zaizkie: zentroetan aldi baterako egonaldietarako 427 plaza eta tutoretzapeko apartamentuak. Eguneko zentroetan 2.313 plaza daude,

hau da, azken 5 urteetan zentro horietako plazen eskaintza %83 igo da (urte arteko %13).

Etkez etxeko laguntza zerbitzuak 17.000 adineko baino pixka bat gehiagori eman zien laguntza euren etxeetan. Azken bost urteetan zehar, eta administrazioaren %90eko finantzaketari esker, zerbitzuak urtean batez beste %8 erabiltzaile gehiago izan zituen.

Bestalde, hirugarren adineko sektore autonomoenen barruan erretiratuen elkarteak eta klubak daude; hauek, enplegu eta gastuetan kopuru txikiagoak izan arren, gizartean oso sartuta daude 65 urtetik gorako adinekoen erdia baino gehiago horrelako klubetako bazkidea baita.

2003. urtean 336 milioi euro gorde ziren adinekoentzako zentroetarako, hau da, gastu osoaren %31. Beste programa batzuetan adinekoentzat erabiltzen diren baliabideak aintzat hartuta (Gizarte-Ongizateko Fondoa, etkez etxeko laguntza eta tele-alarma), hirugarren adinarentzako gastua guztira %40 ingurukoa izan zen.

2. taula: gastuaren bilakaera eta banaketa biztanleria-motaka

	2003	2002	Δ% 03/02
Gastua (mila euro uneko)	1.073.054	915.747	17,2
Biztanleria oro har	388.093	338.790	14,6
- Familietarako transferentziak	227.127	198.050	14,7
Haur-Gazteak	34.003	29.939	13,6
- Egoitzak	25.567	22.417	14,1
Zaharrak	335.921	268.563	25,1
- Egoitzak	287.724	232.156	23,9
Ezgaitsuak	253.904	220.325	15,2
- Egoitzak	42.345	39.352	7,6
- Lanbide-zentroak eta EZB (1)	162.335	145.357	11,7
Emakumeak	5.817	5.380	8,1
Zokoratuak	55.317	52.750	4,9

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp